

## Ilargiaren efemerideak

- 2** 05:01ean, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin  $7,4^\circ$ -ra.
- 3** Gehienezko librazioa latitudean ( $b = 6,64^\circ$ ).
- 6** Gehienezko librazioa longitudean ( $l = 7,53^\circ$ ). Une egokia da Hego polo miresteke.
- 7** 15:43an, Ilbehera.
- 10** 08:06an, goranzko nodotik pasatuko da.
- 12** 09:36an, apogeotik pasatuko da (Lurrarekiko distantziarik handiena).
- 15** 21:02an, Ilberria.
- 17** 06:08an, konjuntzio geozentrikoan Artizararekin  $6^\circ$ -ra.
- 19** Gutxienezko librazioa latitudean ( $b = -6,56^\circ$ ).
- 21** 00:31n, konjuntzio geozentriko Pleiadeekin  $0,3^\circ$ -ra.  
Gutxienezko librazioa longitudean ( $l = -6,27^\circ$ ).

- 23** 11:01ean, Ilgora.
- 24** 13:03an, beheranzko nodotik pasatuko da.
- 25** 12:15ean, konjuntzio geozentrikoan Marterekin  $4,3^\circ$ -ra.
- 28** 04:46an, perigeotik pasatuko da (Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena).
- 29** 12:29an, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin  $7,4^\circ$ -ra.
- 30** 02:26an, Ilbetea.
- 31** Gehienezko librazioa latitudean ( $b = 6,53^\circ$ ).

### martxoa 2010


A	A	A	O	O	L	I
<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	4	5	<b>6</b>	<b>7</b>
8	9	<b>10</b>	11	<b>12</b>	13	14
<b>15</b>	16	<b>17</b>	18	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>
22	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	26	27	<b>28</b>
<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>				

## Beste efemeride batzuk

- 1** Astelehena. Egurdian, 2.455.257. egun juliotarra hasiko da; Kristo aurreko 4713ko urtarrilaren 1eko eguerditik igaro diren egunak dira horiek. Kalkulu astronomikoak errazago egiteko erabiltzen da datu hori. XVII. mendeko erudito frantses batek, Joseph Justus Scaliger-ek, zehaztu zuen data hori, garai hartako hiru ziklorik garrantzitsuenek bat egiten zutelako: 28 urteko eguzki-zikloa, 19 urteko ilargi-zikloa eta erromatar zergen 15 urteko zikloa, "erromatar indikzio" deiturikoa.
- 12** Eguzkia, itxuraz, Piscis konstelazioan sartuko da ( $351,45^\circ$ ).
- 20** 17:32an, martxoko ekinozioa. Udaberriaren hasiera Ipar hemisferioan.  
Astrologiaren arabera, Eguzkia Ariesen sartuko da ( $0^\circ$ ). Itxuraz, Piscisen konstelazioan egongo da astronomikoki apirilaren 19ra arte. Prezesio-mugimenduaren ondorioz, Piscisen izango da Aries puntua deritzona.
- 24** Birjinida izeneko izar iheskorren maximoa.
- 28** Europako Batasuneko herrialdeak udako ordutegian sartuko dira: goizaldeko ordu bietan hirurak arte aurreratu beharko da erlojua. Aurten, urriaren 31ra arte izango dugu ordutegi hori.

## Zerua

2010eko martxoaren  
15eko 23:30ekoak



Ekialdea

## Planetak

### Ikusgaiak

Goizez: Saturno.  
Arratsalde: Merkurio (hilaren 22tik aurrera), Artizarra, Marte eta Saturno.  
Gauetz: Marte eta Saturno

### Merkurio

Goi-konjuntzioan egongo da hilaren 14an, eta ez da behatzerik izango hilabeteko egun gehienetan. Arratsaldez ikusi ahal izango da hilaren 22tik aurrera, eta, oskarbi dagoenean,  $-1,5$ eko magnitudeaz distiratu du. Hilaren 31n, Eguzkia baino ordu eta erdi geroago sartuko da,  $-0,9$ ko magnitudearekin. 22 h eta 1 h bitarteko igoera zuzena.  $-13^\circ$  eta  $+06^\circ$  bitarteko deklinazioa. Aquariusen izango da, eta Piscisera igaroko da. Ikusten den uneetan,  $-1,8$ tik  $-0,9$ ra jaitsiko zaio magnitudea.

### Artizarra


Eguzkia baino ordubete geroago ezkutatu du hilaren 1ean, eta ordu eta erditik gorako

tartearekin hilaren 31n. Ekliptikaren inklinazioa lagun, bizkor-bizkor handituko zaio altuera, eta ia  $8^\circ$ -ra iritsiko da hilean zehar. Horri esker, gero eta errazagoa da hura behatzea. 23 h eta 1 h bitarteko igoera zuzena.  $-04^\circ$  eta  $-10^\circ$  bitarteko deklinazioa. Aquariusen hasiko du hila. Gero, Piscisera igaroko da berehala, sartu-irten bat egingo du Cetusen, eta, ondoren, berriz itzuliko da Piscisera.  $-3,9$ ko magnitudea izango du.

### Marte

Eguzkia sartu baino lau ordu lehenago aterako da hilaren 1ean, eta sei ordu baino gehiagoko tartearekin 31n. Gure meridianotik pasatuko da gauaren hasieran; oso goitik, Hegoaldeko horizontearen gainetik. Hilaren 10ean, egonkor izango da; eretrogradazio-begitzairekin segituko du, ekliptikatik ekialderanzko mugimenduari jarraitzeko. 8 h-ko igoera zuzena.  $+23^\circ$ -ko deklinazioa. Hil osoan Cancerren izango da. Magnitudea  $-0,5$ etik  $0,1$ era aldatuko zaio.

## Behatzeko proposamena



### Begi hutsez:

Nahiz eta ekliptikaren mendebaldeko horizontearen gaineko angelua txikitu egiten den Eguzkia sartutakoan, arratsaldean oraindik ere ikus daiteke argi zodiakala Ilargirik ez dagoen egunetan. Argi ahuleko kono bat da, eguzki-argia planeten inguruan orbitatzen duten partikula mikroskopikoen gainean islatzen denean sortzen dena. Horizontearen 10-20° hartzen ditu, eta 40-60° ere igotzen da ekliptikatik. Behatzeko, jakina, ezinbestekoa da zeruan argi-poluziorik ez izatea.

**Hilaren 3an**, Perseuseko Algol izar aldakorren distira minimoa; 3,3ra iritsiko da haren magnitudea. Hileko gainerako minimoak 5an, 8an, 11n, 14an, 17an, 20an, 23an, 25ean, 28an eta 31n izango dira. Izar aldakor gisa identifikatutako lehen izarretako bat izan zen Algol. Maximoan, 2,1eko distira du; beraz, erraz ikusten da begi hutsez hirietako erdipurdiko zeruetan ere. Horrela, errazagoa da haren jarraipena egitea. Haren distira-aldaketa egiaztatzeko, hurbileko Almach (Gamma Andromeda) izararekin erka daiteke; 2,1eko magnitudearekin, egonkorra da Almach.

**Hilaren 4an**, Delta Cephei izar aldakorren distira maximoa; magnitudea 4,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,37 egunetan behin. Hilaren 9an, 15ean, 20an, 26an eta 31n izango dira beste maximoak.

**Hilaren 5ean**, Eta Aquilae zefeida-motako izar aldakorren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,18 egunetan behin. Hilaren 12an, 19an eta 26an izango dira beste maximoak.

**Hilaren 20an**, ilunabarraren amaieran, Ilgora fin bat ikus daiteke, errauts-koloreko argia duena, Pleiadeetatik oso hurbil. Argiztatu gabeko aldean, Tycho kratera ikus daiteke.

### Teleskopioarekin:

Saturno ikusteko une egokia.

**13ko eta 20ko** asteburuetan, behatzeko kondizioak bikainak izango dira Messier maratoia egiteko; tresna batekin gau bakar batean katalogo honetako ahalik eta objektu gehien ikustean datza.

Hilaren 25ean, Ilgoraren ondoan ikusi ahal izango da.

### Jupiter

Itxuraz, Eguzkitik hurbilegi dago, eta, beraz, ezin da behatu. 23 h-ko igoera zuzena. -8° eta -06° bitarteko deklinazioa. Aquariusen. -2,0ko magnitudea.

### Saturno

Oposizioan hilaren 22an (2011ko apirilaren 3an izango da hurrengoa); eraztunek 3,1°-ko inklinazioa izango dute. Virgoren mendebaldean izango da, eta 45°-tik gorako altueran igoerako da meridianotik. Une ezin hobea izango da behatzeko. Titan sateliteak 8,3ko magnitudea izango du, eta disko-forma ikusi ahal izango da. 12 h-ko igoera zuzena. 02°-ko deklinazioa. Hil osoan Virgoren izango da. 0,7ko magnitudea izango du.

Hilaren 2an, Ilbeheraren ondoan ikusi ahal izango da.

Hilaren 2an, 18:53an, Titan elongaziorik handienean planetatik mendebaldera.

Hilaren 10ean, 20:59an, Titan elongaziorik handienean planetatik ekialdera.

Hilaren 18an, 16:20an, Titan elongaziorik handienean planetatik mendebaldera.

Hilaren 26ean, 18:26an, Titan elongaziorik handienean planetatik ekialdera.

### Urano

Ezin izango da behatu hil honetan. 23 h-ko igoera zuzena. -02°-ko deklinazioa. Piscisen egongo da, eta 6,0 magnitudea izango du.

### Neptuno

Ezin izango da behatu hil honetan. 22 h-ko igoera zuzena. -13°-ko deklinazioa. Capricorniusen izango da, eta Aquariusera igoerako da hilaren bukaeran; 8,0ko magnitudea izango du.

\* Hilaren 28ra bitartean, gehitu ordu bat denbora ofiziala kalkulatzeko. Handik aurrera, gehitu bi ordu.